

GIPUZKOA

Urtarrilaren 14an emango zaio hasiera txotx denboraldi berriari

Sagardo Berriaren Eguna ospatuko da Astigarragako Sagardoetxea Museoa

DV

24 diciembre 2014
03:25

Urtarrilaren 14an aurkeztuko ditu Sagardoaren Lurraldeak 2014ko uztaren ezaugarriak, txotx denboraldi berriari hasiera eman eta sagardo berria dastatzen hasteko ekitaldian. Sagardoetxea Museotik ezagutzera eman dutenez, Andoni Gartzia,

Astigarragako alkateak, Sagardoetxean bertan eguerdiko 12:00etan ospatuko den aurkezpen ekitaldian uzta berria aurkeztuko du, eta sagarraren eta sagardo berriaren ezaugarrien berri emango du, sagardoaren munduko gertaera garrantzitsuenekin batera.

Urtero bezala, hogeitabigarren aldi honetan ere, ekitaldiko unerik garrantzitsuena txotx irekierakoa izango da. Astigarragako Bereziartua sagardotegian 'Gure Sagardo Berria' oihu egingo du ekitaldiko protagonistak lehen kupela irekitzean, eta honekin batera, sagardo denboraldi berria irekiko da. Oraindik jakiteke dagoena protagonista horren edo horien izena izango da. Iaz Kalakan taldea izan zen, eta duela bi urte La Oreja de Van Gogh.

Irekiera ofizialaren aurretik, eguneko protagonistak Sagardoetxea Museoko sagastian sagarrondo berri bat landatuko du. Ekitaldi sinboliko honekin, naturaren dinamiktasuna eta berritzeko ahalmena azaldu nahi dira, diote Sagardoetxeatik, "urtetik urtera mahai batean sagardoaren bueltan esertzeko aukera eskaintzen baitigu".



4 Riojas Reserva con un 40% dto

¡Sólo 7€ botella! – Sacacorchos y transporte gratis

www.vco/coleccion-4-reservas-rioja/



Lote navideño Renault

Realiza la revisión con ELF y llévate de regalo nuestro lote navideño

www.renault.es/posventa

DIARIOVASCO.COM Sociedad Vascongada de Publicaciones, S.A.

Registro Mercantil de Gipuzkoa, Libro de Sociedades 49, Folio 118, Hoja nº 2.900, Inscripción 1ª C.I.F.: A-20004073 Domicilio social en Camino de Portuetxe, 2 San Sebastián 20018. Correo electrónico de contacto contactanos@diariovasco.com

Copyright © Sociedad Vascongada de Publicaciones, S.A. Incluye contenidos de la empresa citada, del medio El Diario Vasco (Sociedad Vascongada de Publicaciones, S.A.), y, en su caso, de otras empresas del grupo de la empresa o de terceros.

EN CUALQUIER CASO TODOS LOS DERECHOS RESERVADOS:

Queda prohibida la reproducción, distribución, puesta a disposición, comunicación pública y utilización total o parcial, de los contenidos de esta web, en cualquier forma o modalidad, sin previa, expresa y escrita autorización, incluyendo, en particular, su mera reproducción y/o puesta a disposición como resúmenes, reseñas o revistas de prensa con fines comerciales o directa o indirectamente lucrativos, a la que se manifiesta oposición expresa.